

## **110/14 PRENTSA OHARRA**

### **DBUS, “2015. URTEKO ENPRESA” AUKERATU DUTE**

### **HIRI GARRAIOAREN KATEGORIAN**

“Urteko Enpresak” izeneko sarien XXIII. edizioan Dbus “2015. urteko Enpresa” aukeratu dute bidaiarien hiri garraioaren kategorian. “Autobuses&Autocares” aldizkari espezializatuak antolatutako sariak dira, eta sektorean prestigio handia dute. 2007an ere jaso zuen sari hori Dbusek, saria jaso duen lehen euskal hiri bihurtuta.

Saria entregatzeko jendaurreko ekitaldia Madrilen egingo da, abenduaren 11an. Sariak 1992az geroztik ematen dira eta bidaiarien garraio operadore estatalek garatzen duten lana azpimarratzen dute beraien hiru negozio segmentuetan: garraio erregularra, lineaz kanpokoa eta hiri garraioa. Hiri garraioaren sailean, aurreko urteetan Bilbo, Logroño, Valentzia eta Coruñako hirietako enpresak saritu dira, besteak beste.

Epaimahaiak, independentea eta sektoreko pertsona garrantzitsuz osatuta dagoelarik, parte hartu duten enpresetako bakoitzaren ustiapen datuak aztertu ditu eta, ondorioz, sariarekin Donostian bidaiariak oro har erabiltzen duten garraio publiko erregularren zerbitzuaren kalitatea aitortzen da; erabiltzaileek ere oso ondo baloratu dute, urteko azken gogobetetze inkestak erakusten duenaren arabera.

Saria ematerakoan funtsezkoak izan dira garraio publikoaren erabilera handia eta autobus zerbitzuaren etengabeko hobekuntza, bai eta garraio ez kutsatzaileen erabilera sustatzeko aurrera eramandako ekimenak ere. Donostia da autobus erabilera indize handiena izan eta autobus zerbitzua efizientziarik handienaz eskaintzen duen hiria, donostiar bakoitzarengandik hurbilago dagoen eta abiadura komertzial eta puntualtasun handiarekin dabilen autobus sare batekin.

Dbusek eguneko 27 lineetan (4 mikrobus linea hiriko goialdeetarako) eta gaueko 9 lineetan ematen du zerbitzua. Autobus flotan 122 ibilgailu daude, batez beste 6,9 urte dutenak eta urtero 6 milioi kilometro baino gehiago egiten dutenak, eta autobusek 17,55 km/h-ko abiadura komertziala erregistratzen dute, hau da, hiri garraioko autobus enpresen artean ratorik hoberena. Urtean 28 milioi bidaia inguru egiten dira; horrek esan nahi du donostiar bakoitzak 151 bidaia egin dituela gure zerbitzuetan, Europan dagoen zifra handienetako bat eta antzeko biztanle kopurua duten gainerako hirietakoa baino askoz handiagoa. Enpresaren plantillari dagokionez, 505 pertsonak osatuta dago, eta pertsona horietatik 406 gidariak dira.

Era berean, Dbusek AENOREk Bidaiarien Garraio Publikoari buruzko UNE-EN 13816 arauaren arabera ematen duen kalitate egiaztagiria du bere hiru linea nagusietan (L5, L13 eta L28), eta egiaztagiria lortu duen Euskal Herriko lehen garraio enpresa da. 3 linea horiek Dbuseko urteko bidaien %50 egiten dute. Testuinguru horretan, Donostiako hiriko autobus linea guztietan funtzionamenduko prozedura berak eta eskakizun berak aplikatzen ari dira; horrenbestez, Dbusek hiriko autobus sare osoko autobusetan kalitate maila bera, hau da, kalitate handia dagoela bermatzen du.

Azken urteetan, Dbusek hainbat sistema ekologiko eraginkor ezarri ditu, esaterako Ustiapenerako Laguntza Sistema (SAE), besteak beste, hainbat euskarritan (informazio panelak, web orria eta mugikorrak) eta autobusen barruan ere, informazio pantailen bidez, autobusak iristeko denborak ikusi eta hurrengo geltokien eta egin ahal izango diren garraio aldaketen berri emango digutenak. 95 panel elektronikoki ditu geltokietan, eta horietatik 85ek LED teknologia dute eta 10ek TFT teknologia, irudiak eta bideoak igortzea ahalbidetzen dutenak. Informazioa QR, SMS eta Bluetooth bidez ere eskuratu daiteke. Era berean, ibilbidearen zatiren bat maldan duten lineetako geltokietan bizikletak autobusera sartu ahal izango dira.

Gainera, Dbusek BRT lineak ditu hiriko igarobide nagusietan (Bus Rapid Transit). Donostia hiriko BRTa ahalmen handiko autobusekin garraio zerbitzua emateko igarobide eskusiboetan oinarritutako sistema da, konexio eraginkorra eskaini eta erabiltzaileei denbora errealean informazioa emateko zerbitzu bikaina duena, bai eta flotaren abiadura komertzial eta puntualtasuneko zifra altuak ere. Era berean semaforoetan lehentasuna izateko sistema bat ere badu, hau da, semaforoak automatikoki egokituta daude autobusei bidegurutzetan itxarotea egokitu dakiekeen denborara, itxaron denbora txikiagoak egiteko. Gaur egun, Dbuseko autobusek hiriko 82 bidegurutzetan eskatu dezakete lehentasuna izatea, eta horretaz aparte semaforo eskusibo bat ere badute.

Dbusen beste berrikuntza batzuk tarifa sistemari buruzkoak dira, garraio arteko bidai txartel adimenduna duena, kontakturik gabekoa eta behin baino gehiagotan kargatu daitekeena, erabileraren arabera deskontu progresiboak izango dituen, edo NFC proiektu pilotua, non autobusean telefono mugikorraren bitartez ordaintzeko sistema bat probatu baita.

Era berean, zerbitzua hobetzeko ahalegin etengabea, Dbusek honako elementu hauek ezarri ditu: itsuentzako audio bidezko informazio sistemak autobusetan zein geltokietan, balioztatzeko makina azkarragoak eta eraginkorragoak, erdiko atean txartelak baliozkotzeko makina bat gurgildun aulkian doazenentzat, haur kotxe eta aulkia daramatenentzat, eta bideozaintzarako sistemak. Bidaietan, eta batez ere adineko pertsonentzat, segurtasuna eta erosotasuna hobetzea garrantzitsua dela jakinda, Dbusek hainbat kanpaina jarri ditu abian erabiltzaileentzat eta Dbuseko langileentzat beraiantzat. Kanpaina horietako bat "Ibili DBUSen segurtasunez" izenekoa da, autobusetan ibiltzeko aholku eta gomendioekin. Garatu diren sistema berritzaileentako bat Assistant aplikazioa da, Teknaliak sortua eta uztailaz geroztik Dbusen probatzen ari dena. Aplikazio horrekin adineko pertsonen edo bere kabuz mugitzeko arazoak

dituztenek Dbuseko autobusetan bidaiatu ahal izango dute bere ibilbidetik desbideratzea edo galtzea saihestuta.

Bestalde, autobusen eraginkortasun energetikoa eta zerbitzuaren puntualtasuna hobetzeko sistema berritzailea ere badu Dbusek. Sistema horren baitan dugu, batetik, antibunching sistema (puntualtasuna hobetu eta bide batez linea bereko autobusek zaindu beharreko distantzia mantentzea ahalbidetuko duena, ezarritako ordutegiak ahalik eta gehien errespetatuta) eta, bestetik, modu efizienteagoan gidatzen laguntzeko sistema (une bakoitzean gidatzeko modurik egokiena adierazten du, hau da, nola gidatu kutsatzaileen igorpena murrizteko eta erregai gutxiago kontsumitzeko, eta matxura gutxiago izateko ere bai).

Garraibide ez kutsatzaileak bultzatzeari dagokionez, uztailaz geroztik Dbusek Europako lehen autobus elektrikoa du, eta Donostia da autobus hori zirkulatzen egon den lehen hiria. Autobus flotan, halaber, ibilgailu hibridoak eta Euro 6 teknologia duten autobusak daude, ingurumena gehiago errespetatzen dutenak eta Dbusek ekologiarekin eta iraunkortasunarekin duen konpromiso etengabearen erakusle direnak. Ibilgailu ekologiko horiek igorpenak gutxitzea ahalbidetzen dute, urtean atmosferara 225 tona CO<sub>2</sub> gutxiago igortzen dela kalkulatu baita, eta horrekin hirian airea garbiagoa eta osasungarriagoa izatea bermatzen da.

Saria Dbusek azken urteetan jaso dituen errekonozimendu ugarietako batzen zaie, sektorean erreferentziazko konpainia bihurtuta. Besteak beste, hauek nabarmentzen dira:

- 2014: "Most Innovative Transport Operator", Master Card Transport Ticketing Award, Dbus munduko 5 garraio operadore berritzaileenen artean kokatzen da.
- 2013: "Funding Transport Achievement", International Transport Forum Award, munduan hoberen kudeatutako 4 garraio enpresa hoberenen artean kokatzen da.
- 2013: Zilarrezko Bikain Egiaztagiria, Dbusek euskararen normalizazioaren alde egiten duen hizkuntz kudeaketa aitortzeko.
- 2012: "City of the year", CIVITAS Award, Garraio Publiko Iraunkorragatik.
- 2011: "Technical Innovation", CIVITAS Award, Berrikuntza Teknologikoagatik.

Sariarekin herritar guztien mugikortasuna hobetzeko langile guztiek egiten duten lana eta konpromisoa aitortzen da. Era berean, saria egunero autobusa erabiltzen duten herritarrekin konpartitua da, hauei esker hiri ekologikoago eta gizatiaragoa sortzen laguntzen delako.